



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

**Echezarreta paper-fabrika
Gipuzkoako industria-ondarearen
eredu**

I. Otamendi-Irizar

503-508 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.69>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Echezarreta paper-fabrika Gipuzkoako industria-ondarearen eredu

Otamendi-Irizar, I.

Arkitektura Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
irati.otamendi@ehu.es

Laburpena

Lan honek, egun hain premiazkoa den ondare industrialaren inguruko ikerketa beharrari erantzuten dio eta aztergai duen kasua, Echezarreta paper-fabrikarena, ibai-ibilguen inguruan egituratuz hedatu zen gipuzkoar industriaren eredu da. Artikulu honen helburua, Legorretako Echezarreta paper-fabrikaren kasua adibide gisa hartuta, industriak izan duen lekua eta eragina ezagutzera eman eta industria-ondarea aintzateste bidean ekarpena egitea da.

Hitz gakoak: industria ondarea, papergintza, Gipuzkoa, Echezarreta

Abstract

This paper is framed within the current, necessary research on industrial architectural heritage and the case in question is the Echezarreta paper mill. This case study represents a significant example of industrial development of industry in Gipuzkoa, which was developed in an uncentralized way spreading out from the river basins. The aim of the paper is to make the role played by industry in the development of our country clearly visible in order to contribute to an understanding and acknowledgement of our industrial heritage.

Keywords: industrial heritage, paper mill, Gipuzkoa, Echezarreta

1. Sarrera eta motibazioa

Industria gure herriaren garapenean motor nagusi izan da. Bultzada handia eman zuen bilakaera urbano eta sozialean, eta era berean, paisaiak ere aldaketa nabarmenak bizi izan zituen. Egund, garapen-prozesu honen lekuko diren industria-multzo ugari daukagu gure lurraldean hedatuta, eta garaian garaiko gizartea, kultura, ekonomia, teknifikazio maila eta korrante estilistikoaren adierazle dira.

Gipuzkoa industrialala probintziako lau ibai-ibilgu nagusien inguruan egituratzen da. Testuinguru horretan, Oriako arroa, Gipuzkoako zabalena izateaz aparte, Euskal Herriko gune industrializatuenetako bat ere bada (Eusko Jaurlaritza, 2012).

Horren isla da ondare-balio handia duen presentzia industrialala (arkitekturak, azpiegiturak, paisaiak...). Elementuok balio arkitektoniko-tekniko, historiko-teknologiko eta soziologiko esanguratsua badute ere, arriskuan daude nola presio urbanistikoagatik hala gizarteak ondare izaera aitortu eta bere identitatearen parte sentitzeko zailtasunak dituelako.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Industria-ondarea ez aintzatestea da arazoaren oinarri. Azken boladan herentzia hori balioan jartzeko zenbait prozesu sustatu eta ikerketa-lan garatu badira ere, gizarteak ez du behar adina interes eta ondorioz, ez du aktiboki jarduten.

Halaber, administrazioak eta ondarearen zaintzarako dituzten erremintak ez dira behar bezain eraginkorrak euren zainketa-ardurei (Euskal Autonomia Erkidegoa, 1990) dagokien bezala erantzuteko.

Hori guztiagatik, egoera honetan, ikerketa funtsezkoa da gaiarekiko ezagutza mailari egiten zaion ekarpenagatik eta ondarea ezagutzea, haren babesa bermatzeko lehen pausoa dela ulertzen baita.

Ikerketa honen helburua, Legorretako Echezarreta paper-fabrikaren kasua adibide gisa hartuta, industriak izan duen lekua eta eragina ezagutzera eman eta industria-ondarea aintzatesteko bidean ekarpena egitea da.

1. irudia. Echezarreta paper-fabrika 1960 inguruan



3. Ikerketaren muina

3.1 Echezarreta paper-fabrikaren abiapuntua: Oria ibaia

Echezarreta paper-fabrikaren abiapuntua 1902an koka daiteke, turbina bat elikatzea helburu izanik Juan José Echezarretak, Oriako uren erabilera industrialerako baimena lortu zuenean. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 1902).

Era honetako abiapuntuak ohikoak izan dira. Gipuzkoan, ibai-ibilguen ur-aprobetxamenduan oinarritutako lehen ekimen industrialak XIII. mende erdialdekoak dira (Urteaga, 1989) eta geroago, fabrika moderno askok euren energia-iturria bermatzeko, gure bailaretan hain ugariak izan ziren burdinola zein irin-errota bezalako instalazio aurreindustrialen ur-aprobetxamendu azpiegiturak baliatu zituzten (Herrerias, 2011).

Echezarretak baditu fabrikaren garapenarekin bereganatutako beste bi ur aprobetxamendu: Legorretan bertan dagoen “Errotazar”-ekoa eta Ikaztegiatan kokatutako “Urbideko errota”koa (Aguirre, 2004). Izenei erreparatuta, aurrez azaldutako berrerabilpen joera horren beste kasu bat izan litekeela dirudi.

3.2 Papergintza

Legorretan paper-fabrika kokatzea ez zen kasualitatea izan. Papergintza, Gipuzkoan -eta bereziki Oria bailaran- XIX. mendetik garatutako industria sektore garrantzitsuenetako bat da. (Catalán, 1990). Garaia ere ez zen edozein, Estatuko paper-ekoizpenaren inguruko datuei erreparatuta, 1892an 15.000 tonako produkzioa eman bazen, 10 urte geroago, Echezarretak bere proiektu industrialari ekin zion urtean, 36.000tonara ailegatu ziren (Irigoras, 2008). Gainera, urtebete lehenago, 1901ean sortua zen La Papelera Española, sektorea berregituratu eta indartu asmoz.

Echezarretaren paper-fabrikaren hastapenetan, kartoia eta kaxa-kartoia besterik ez zuten produzitzen baina urte batzuen buruan, 1918an, papera ekoizteari ekin zioten. 1919an beste 17 bazkiderekin batera, “La Sociedad Cooperativa de Fabricantes de Papel de España (S.C.F.P.)” eratu zuten, guztientzako lehengaiak erosi eta bakoitzaren beharren arabera banaketa egitea helburu izanik. 18 fabrika horietako 12 Gipuzkoan zeuden eta horietako 8 Tolosan. Beste 2 Hernanin, 1 Iruran eta Echezarretarena Legorretan (Irigoras, 2008). Nabarmena zen gipuzkoar papergintzaren indarra, 1931an estatuko paper produkzioaren %60a ekoizten zen probintzia honetan (Doxanbaratz, 2002).

Juan José Echezarretarekin batera, eta lehendik abiatutako proiektuari bultzada emateko, 1933an “Fábricas de Papel y Cartón Echezarreta, S.A.” elkarte osatu zuen Gumersindo Bireben ingeniariak, Gipuzkoako paper-fabriken arrakastari buruz idatzi zuen 1948an. Haren esanetan, hauek ziren faktore garrantzitsuenak: Pasaiako portutik paper-ekoizpenerako “paper-orea”

inportatzeko eta ikatza prezio onean lortzeko erraztasuna, garairako Gipuzkoako ibaietan kokatutako ur-saltoei esker eskuratutako energia-elektriko oparotasuna eta arbasoen izpiritu ekintzailea, besteak beste (Bireben, 1948). Horretaz gain, azpimarragarria da Madrid-Irun trenbidea eta N1 errepidea Oria bailaran zehar eta kostalderantz –Pasaiatik pasaz- igarotzeak izan zuen garrantzia.

Papergintzak Oria bailaran -batez ere ibaiaren erdi-ibilguan, Tolosaldean- izan zuen arrakastaren eredu da 1965ean martxan jarri eta egun oraindik martxan darraien Tolosako paper-eskola, estatu mailan erreferente izan zena.

3.3 Industriaren eragina gure herri eta paisaien bilakaeran

Azpimarratzekoa da industriak gure herri eta paisaien eraldaketan izan duen eragina. Industriaren ekoizpen-jarduerarekin erlazionatutako eraikin eta azpiegiturek gure inguruetan izan duten presentziak aparte, industrialarien ekimenezko eraikin, auzo eta gune ugari aurki daitezke gure parajeetan. Kontu honetan ere eredugarria da aztergai dugun kasua.

Juan José Echezarretak ekarri zuen argia Legorretara. Herriko lehen elektrizitate sarea, 1902an haren paper eta kartoi fabrika elektrifikatu zuena izan zen eta urte batzuk geroago, 1923an, herrira zabaldu zuen argindar hornidura. Era berean, Ordizia eta Zaldibia (Legorretatik 5 eta 8km-tara daude hurrenez-hurren) hark eraikitako zentralak hornitu zituen argindarrez (Aguirre, 2004). Ordiziako herriari energia elektrikoa eskaintzeaz aparte, egun bere izena duen herri-antzekiaren eraikuntza sustatu zuen Echezarretak herrian bertan zuen orube batean.

Legorretako fabrika garatzen zihoan eran, 1923-1924an 70 langile -20 emakumezko- (Aguirre, 2004) izatetik 1943an 180 langile izatera pasata (Doxanbaratz, 2002), herrian ez zen eurentzako behar adina etxebizitza libre. Hau horrela, 1947an herrian bizi ez ziren fabrikako langileei etxebizitza eskaintzeko helburuarekin Echezarreta familiak, herriko erdigunean zituen orubeak dohaintzan eman zituen “Echezarreta auzoa” eraikitzeko. 1940an herri erdigunean 37 etxebizitza zeuden (Aguirre, 2004) eta Ramón Martiarena arkitektoak diseinatutako proiektu honekin etxebizitza kopurua bikoiztu egin zen hurrengo urteetan.

Azpiegitura, eraikin eta auzoetatik haratago, familia honek, beste industrialari askoren gisan, jabetzan landa-lur ugari zituen eta egurra paper produktiorako beharrezko lehengaietako bat izanik, lur horiek hazkunde azkarreko zuhaitzez josi zituen. 1932 eta 1952 artean, urtean 2.000.000 inguru “pinus insignis” landatzen ziren Gipuzkoan (Giménez, 1952) eta ondorioz, gure paisaiak eraldaketa nabariak jasan zituen. Bilakaera honen ondorio bisualez gain, kontuan izan behar da ordura arteko lur ustiapen moduan, eta ondorioz, hauek ustiatzen zituztenen bizimoduan izandako eragina.

3.4 Industrialariak aitzindari

Peter Behrens arkitekto alemaniarrak 1920an eraikin industrialek izan behar zituzten ezaugarri nagusiak finkatu zituen. Espazioen banaketarekin erlazionatutako ideiak proposatu zituen eta enpresaren “irudi korporatiboa” osatze aldera kontuan izan beharrekoak aipatu (Behne, 1923). Haren ideiak aintzat hartuta formulatu zituzten Mugimendu Modernoaren oinarriak Gropiusek baieztatu zuenez (García, 2005).

Aipagarria da korrante arkitektoniko honek Euskal Herrian, eta Gipuzkoan bereziki, izan zuen presentzia. Lehen adibideak 1920 eta 1930 hamarkadetan eman baziren ere, 1936ko Gerraren ondoren hedatu zen indar handiagoz. Industria arkitekturan eman zen bereziki (Fernández Altuna, 2004), erregimen frankistarekin eraikin publiko eta etxebizitzek irudi historizistei erantzun behar zieten bitartean, eraikin industrialetan modernotasunerako askatasun handiagoa baitzegoen (Collantes eta Otamendi, 2011).

Beraz, Gipuzkoan industrialariak aitzindari. Behrensen “irudi korporatiboa”ren inguruak bere egin zituzten eta euren fabriken irudi modernoa adierazteko propaganda-erreminta gisa erabili zuten arkitektura. Honen eredu ditugu, Legorretako papergileak sustatuta Domingo Unanuek 1927an diseinatutako Ordiziako Herri-Antzokia eta 30 urte geroago, fabrikari berari

irudi berritzailea emango zion bulego eraikina. Azken hau, Fernando Redón Huici arkitekto nafarrak diseinatu zuen Mugimendu Modernoko aitzindarietako bat izandako Richard Neutra arkitektoarekin lanean jarduteko aukera izan ondoren (Fernández Salido, 2006). Aipatutako bi eraikin hauek DOCOMOMO (Documentation and Conservation of buildings, sites and neighbourhoods of the Modern Movement) fundazioak erregistratuak ditu.

2. irudia. Ordiziako Echezarreta Herri Antzokia eta Legorretako fabrikako bulego eraikina




3.5 Behar berriak, arkitektura berriak

Jantzi bat soinaren aldaketetara moldatzen den gisan egokitu behar du eraikinak uneko beharretara (Perez de Arce, 2008). Premisa honen aplikazio zuzena ematen da fabrika baten garapenean. Azken batean, eraikin industrialaren oinarritzko baldintza da denboran zehar izango diren aurrerapenetara eta eskakizun berrietara egokitzeko gaitasuna. Beste era batera esanda, izaera ez amaitua beharrezkoa da kasu hauetan, sistema operatibo ireki gisa funtzionatzeko gai izan behar dute (Sobrino, 1996).

Legorretako paper-fabrikaren bilakaera aurrez esandakoaren isla da. Lehen urte haietan eskulangintzan oinarritutako jarduerarako zuten eraikin bakar hartatik (Doxanbaratz, 2002) egungo 13.000m²-tik gorako azalera hartzen duten instalazioetara bidean pauso asko eman dira. Pauso bakoitzak behar berri bati erantzun dio, gehienetan ekoizpen-prozesuan emandako aldaketen arabeko beharrei. Teknologian izandako aurrerapenetan oinarritzen ziren aldaketa gehienak eta aldi berean, aldaketa horiei unean-uneko eraikuntza-teknika berrien bidez ematen zitzaaien erantzuna.

3. irudia. Echezarreta paper-fabrikaren bilakaera



3.6 Fabrika bera ekimen ezberdinen egoitza

Ohikoa da enpresa baten industria-jarduera amaitzean, fabrika bera, jarduera ezberdinetarako edota jarduera bereko beste enpresen ekimenetarako berrerabiltzea.

Aztergai dugun kasua joera honen eredu da. Juan José Echezarretak Legorretan martxan jarritako fabrika, 1933tik “Fábricas de Papel y Cartón Echezarreta, S.A.” izenez eta 1992tik aurrera “Echezarreta, S.A.” bezala ezagutua, 2004an Villabonako “La Salvadora S.A.” paper-enpresak irentsi eta Legorretako instalazioetan ordezkatu zuen “Paperalia S.A.” izenarekin. Urtebeteren buruan, ordea, ateak itxi behar izan zituen. 2009an, lau urtez hutsik egon ondoren, ordura arte Tolosan jardundako “Amaroz S.A.” paper-enpresak Legorretako instalazioak bere egoitza bihurtu zituen. Azken enpresa honek bere jarduera eten zuenetik hutsik dago fabrika, hurrengo ekimena noiz helduko zain.

Esan bezala, Gipuzkoan bertan, industria multzo asko ditugu egoera honetan. Horri erantzuna eman nahian, azken boladan, berrerabiltze aukera hori estrategia gisa baliatuz, eragile ezberdinen parte-hartzean eta kudeaketa modu berrietan oinarritutako zenbait ekimen sortu dira gure lurraldean. Honen eredu dira Eibarren garatutako Berreibar proiektua (Collantes, 2013) eta Urretxuko Irimokoa¹ garatzen ari direna besteak beste.

4. Ondorioak

Agerikoa da, beraz, industriak gure herriaren historian eta bilakaeran izan duen garrantzia. Eta, agerikoa da era berean, horren isla den industria-ondare aberatsa dugula, Echezarreta paper-fabrika bezalako lekukoekin.

Honelako multzo industrialetan aurki daitekeen ondare higigarria eta ondare dokumentala balio handikoak izan daitezke. Aipagarriak dira Echezarretaren kasuan, bertan dirauen Babcock & Wilcox etxeko 1951ko galdara (segur aski mota eta antzinatean honetako bakarra EAE mailan) eta fabrika horretan jardun zuten 3 paper-enpresen dokumentazioa. Ezin ahaztu zentzu honetan, babesik gabeko egoeran emandako espolioazioetatik galdutako makinaria guztia.

Edukiak bezainbesteko balioa du edukiontzia, eta gainera, lehenak zentzua galtzen du bigarrenik gabe, eta alderantziz. Horregatik, industria-arkitektura multzoei, beraiei ere, duten balioa aitortu behar zaie. Batetik, aipatu bezala, kasu askotan industriaurreko azpiegituren berrerabileratik jaio direnez, industria modernoa baino lehenagokoaren berri ematen digute. Gainera, espazioen eta hauen bilakaera aztertzeak bertan emandako ekoizpen prozesuen garapena ezagutzea ahalbidetzen digute. Bestalde, industriaren garapen behar horrek eraginda garai bakoitzean erabilitako eraikuntza material eta teknikak ikusgai izaten dira horrelakoetan. Legorretako paper-fabrikaren, esaterako, 20. hamarkadan jada eraikiak zeuden hormigoi armatuzko egituretatik (Doxanbaratz, 2002) hasi eta 21. mende hasierara arte eraikitakoak arkitektura-multzo beraren parte dira egun.

Hori guztiaz gain, garaian-garaiko bizimolde, ohitura eta ofizioak ezagutzeko parada ere ematen digute ikerketa-kasu hauek, ondare ez-material aberatsa dute beren baitan.

Hau horrela, ezinbestekoa da industria-ondare horri duen balio soziologiko, arkitektoniko-tekniko, teknologiko, historiko eta kulturala aitortzea. Zentzu horretan, funtsezkoa da ikertzea eta ondare honen ezagutzan sakontzea, jakina baita ezagutzen ez dena ez dela baloratzen.

Gainera, aipatutako balioez gain, eraikuntza industrialek sortzetik, denboran zehar eraldatzen joateko ezaugarri bereziak izaten dituztenez, berrerabiliak izateko aukera paregabeak eskaintzen dituzte.

Hau guztia kontuan izanda, industria-ondare arkitektonikoa estrategikoa izan daiteke etorkizun jasangarriago eta aberatsago baten garapenerako.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Echezarreta paper-fabrikaren azterketa, ikerketa zabalago baten parte da. Ikerketa honek, Gipuzkoako -eta bereziki Oria bailarako- industria ondarearen ezagutzan sakonduta helburu zabalago bati erantzun nahi dio.

1 <http://irimoph.blogspot.com/es/>

Zentzu horretan, lurralde mailako analisitik abiatu eta industria-multzo batzuen azterketan sakonduta, industria ondare honen balorazio, babes eta zaintzarako irizpide orokor egokiagoak definitu nahi dira.

6. Erreferentziak

- Aguirre Sarondo, A. (2004). *Legorreta: bizitza ibaiaren biragune batean*, Legorretako Udala, Legorreta.
- Behne, A. (1994). *1923, La construcción funcional moderna*, Col·legi d'Arquitectes de Catalunya, Demarcació de Barcelona, Bartzelona.
- Bireben, G. (1948), La industria papelera en Guipuzcoa, *Revista Financiera del Banco de Vizcaya, Banco de Vizcaya*, Bilbo, urria, 33-36.
- Catalán Vidal, J. (1990): "Capitales modestos y dinamismo industrial: orígenes del sistema de fábrica en los valles guipuzcoanos, 1841-1918" in J. Nadal Oller eta A. Carreras i Odriozola (arg.) *Pautas regionales de la industrialización española: (siglos XIX-XX)*. Ariel, Bartzelona, 125-158.
- Collantes Gabella, E. (2013), Arkitektura-ondare industrialaren birmoldaketa proaktiboa, *Aldiri. Arkitektura eta Abar*, 15, 24-25.
- Collantes Gabella, E. eta Otamendi Irizar, I. (2011): "La redería de Pasaia: modelo de reconversión espontánea de un edificio industrial" in *I Congreso de Investigación sobre Paisaje Industrial*, Sevilla, 116.
- Doxanbaratz Otaegi, B. (2002): *Echazarreta: cien años fabricando papel, 1902-200*, Echazarreta S.A., Legorreta.
- Euskal Autonomia Erkidegoa. 7/1990 legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria [EHAA]* 1990/08/06, 157.
- Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2012): "Caracterización y valoración del paisaje industrial del curso medio del Oria" in *Inventario de paisajes industriales en el ámbito de la comunidad autónoma del país vasco*, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz.
- Fernández Altuna, J.J. (2004), Arkitektura industrial modernoa Gipuzkoan (1928-1939): tipologiak eta iturria, *Ondare*, 23, 325-333.
- Fernández Salido, L. M. (2006): *Fernando Redón Huici, arquitecto*. Gobierno de Navarra, Iruñea.
- García Braña, C. (2005): "Industria y arquitectura moderna en España", in C. García, S. Landrove, A. Tostoes (arg.) *La arquitectura de la industria 1925-1965: Registro DOCOMOMO Ibérico*, Fundación DOCOMOMO Ibérico, Bartzelona, 36-59.
- Giménez Caballero, E. (1952), Las Papeleras en Guipúzcoa, *Mundo hispánico*. 52. (uztaila), 47-50.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (1902). *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala [BOG]* 1902/04/25, 50.
- Herrerías Moratinos, B. eta Zaldúa Goena, J. (2011): *Arqueología industrial en Gipuzkoa. Estado de la cuestión*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Irigoras Ormazabal, A. (2008): *1865-1987, Zegamako papeleria: 122 urte lanean*, Erroteta, Zornotza.
- Perez de Arce, R. (2008): "Treinta años después" in D. Torres, F. García eta N. Tugás, *¡El tiempo construye!*, Gustavo Gili, Bartzelona, 26.
- Sobrino Simal, V.J. (1996): *Arquitectura industrial en España 1830-1990*, Cátedra, Madrid.
- Urteaga Artigas, M. (1989): "Ferrerías en Gipuzkoa. El Río como fuente de aprovechamiento energético" in A. Cañamero, I. Ceberio, et.al *Ibaiak eta haranak: el agua, el río y los espacios agrícola, industrial y urbano*. Etor, Donostia, 121-144.

7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa hau, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko duen programako doktore-aurreko bekaren laguntzarekin ari da garatzen.